

LAN ETA ENPLEGU SAILA

EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 17koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze zuzendariarena, honako ebazpen honen huts-zuzenketari buruzkoa: Ebazpena, 2022ko abenduaren 16koa, zeinaren bidez ebazten baitira enplegu lagundurako jardueretarako laguntzak, urriaren 29ko 168/2019 Dekretuan aurreikusitakoak. Dekretu honek, Euskal Autonomia Erkidegoko desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta enplegu-zentro berezien euskal erregistroa arautzen ditu. Ebazpen hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko administrazio-kontseiluak 2022ko ekainaren 9an onartu zuen, eta 2022/06/22ko EHAAn argitaratu zen.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezartzen duenez, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ahal izango dute, ofizioz edo interesdunek eskatuta, bere egintzetan dauden errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

2022ko abenduaren 16ko Ebazpenean horrelako hutsak atzeman direnez, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

- 4. orrialdean, hau dio:

“Anexo I: Cuantía de la subvención. II Bigarren eranskina: diru-laguntzaren zenbatekoa.”

Baina hau esan behar du:

“Anexo I: Cuantía de la subvención. I. eranskina: dirulaguntzaren zenbatekoa.”

- 6. orrialdean, “Eranskina II. Onartutako aurrekontua eta enplegu lagundurako jarduera-helburuak” dokumentuan, 2022/ECA/000002 APNABI LAN-AUTISMO BIZKAIA EMPLEO, hau dio:

“LP3 8 jarraipen eta LP4 8 jarraipen”

Baina hau esan behar du:

“LP3 10 jarraipen eta LP4 3 jarraipen”.

- 7. orrialdean, “Eranskina II. Onartutako aurrekontua eta enplegu lagundurako jarduera-helburuak” dokumentuan, 2022/ECA/000009 GUREAK ARABA S.L., hau dio:

“LP3 0 jarraipen”

Baina hau esan behar du:

“LP3 5 jarraipen”.

Zuzenketa horrek ez du eraginik dirulaguntzen zenbatekoan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 17a.

Laneratzea Aktibatze zuzendaria,
MAITE MARTINEZ GRANADO.

